




BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



LIEBANA'KO ATE SANTUA:

— URTE SANTUAN IDEGITEN DA.

— BARRENEAN,
ERABILTEN DAN MAILLUA

ERAKUNDEA

EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN BATZORDEA? (2004-01-29)

Lendakaria: Olazar eta Uribe'tar Martin
Lendakari-ordea: Barroeta eta Amorrutu'tar Klaudio.
Kudeatzaillea: Fernandez eta Ruiz de Eskide'tar Karmele.
Idazkaria: Atutxa ta Agirre'tar Paul
Maikoak: Egurrola'tar Iñaki
 Solozabal'dar Paulin
 Malaxetxebarria'tar Jon
 Ormaetxe'tar Emilio

EUSKERAZALEAK EUSKEREAREN ALDEKO ALKARTEA BATZAR NAGUSI BEREIZIRA DEIA

Bazkide maitea:
Idazki onen bidez dei egiten dautzugu 2004n. urte onetako apirillaren 22n. egunean arratsaldeko 8'retan izango dan batzar nagusi bereizirako. Colón de Larreategi, 14, 1' Eskoian.

Gai bakarra au izango da:

"Euskerazaleak alkartearen gizarte etxea Colon de Larreategi 14n. eskoitik beste leku batera aldatzea. orretarako gaurko gizarte-etxea saldu eta lonja barri bat erosita".

Bilbao'n, 2004-03-01

LENDAKARIAK

Apreciado socio:

Mediante el presente aviso, te convocamos a la próxima Junta General extraordinaria, que se en Colón de Larreategi, 14, 2. ° dcha. el día 22 de abril del año en curso a las ocho de la tarde.

El punto único del orden del día será el siguiente:

"Traslado de la Casa Social de la Asociación de Colón de Larreategi, 14, 2. ° derecha, a una lonja y para ello venta del piso actual _y compra de la lonja .

Bilbao, 1-3-2004

EL PRESIDENTE

ZER BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ ALDIZKARIA

Egillea: "Euskerazaleak"
Kudeatzaillea: Fernandez'tar Karmele
Idazkola: "Euskerazaleak"
Zuzendaria: Olazar'tar Martin (Euskerazaintzakoa)
Idazleak: Atutxa'tar Paul (Euskerazaintzakoa)
 Arrinda'tar Anes (Euskerazaintzakoa)
 Aldalur'tar Justine
 Egaña'tar Gotzon
 Solozabal'dar Paulin (Euskerazaintzakoa)
 Martiaru'tar Iñaki
 Latiegi'tar Bixente (Euskerazaintzakoa)

:L 12 AR .N EDES IA EUSKERAZ

GURA **DOZU** IRAKURRI ELEIZEAREN EDESTIA EUSKERAZ?

Bixente Letiegi'ren liburuak eskatu egizuz:

- I.- Apostoluen eta martirien denporako Eliza.
- II.- Elizak eta estaduak bat egin zuten denporako Eleiza.
- III.- San Ignazio'ren denporako Eliza.
- IV.- Denpora barrietako Eliza.
- V.- Demokraziaren denporako Eliza.
- VI.- Denpora auetako Eliza.
- VII: Euskal kristautasunaren sorkuntza.
- VIII Euskal kristautasunaren sendokuntza.

IX.- Euskal kristautasunaren zabalkuntza.

Liburu bakoitxa 500 orrialde inguru dira.

Ordaiña: Bakoitxa sei euro.

Baiña irakurri nai ba'dozuz eta ezin erosi, egizu berba geugaz. Doan emoteko be gertu gagoz, fedea indartzeko ta euskerea zabaltzeko eta irakurtekotan.

Eskatu: Martin Olazar

XXIII Jon Z. enparantza 2.

48100 Mungia - Bizkaia

Tel: 94 674 01 23

NASTEAN

EUSKERAZ NOZ IRARRI ZAN LENENGOZ?

Ikusi dagigun lenengo, itaun onek zer esan gura dauan.

Jakin gura doguna ez da lenengo euskal-itz idatziak noizkoak diran. Bear ba'da Akitania'ko idazkietan aurkituko gendukez, Kristo jaio baiño ainbat lenago.

Ez da euskerazko lenengo esaldiak noz idatzi ziran. Ori Kukula'ko Donemiliane'n aurkituko genduke: Ixioki. Geuk ajutu ez dugu.

Gure itaunak irarkola dau gogoan. Noz irarri edo inprentaz idatzi ziran lenengo euskal itzak. Ori da jakin gura doguna.

* * * x

Irarkola I450n. urtean asmatu eban Gutenberg'ek eta euskeraz idatzi zan lenengo liburua Etxepare'ren "Linguae Vasconum Primitiae" da eta ori ziurtatzen dau pozez beterik idazleak, lenengoa dala. 1545n. urtean izan zan ori.

Baiña idatzi zan ezer lenago inprentaz eta euskeraz? Esaldiren batzuk-edo?

1536n. urtean idatzi da Irugarren Zelestina deritxon liburua eta ortxe agertzen dira bertso batzuk euskeraz irarritu, gure lenengo liburua baiño bederatzu urte lenago.

Aztertu daiguzan Marineo Siculo'ren idaz-lan batzuk, irarkolaz, inprentaz, idatziak.

Orreitariko baten agertzen dira euskerazko itzak eta orreik dirala diñoen irarkolaz agertu diran lenengo euskal itzak. 1530n. urtean irarriak dira, Irugarren Zelestina baiño sei urte lenago.

Panurgo'ren itzaldia deritxon agirian dagoz itzak eta "Cosas Memorables de España" da idazpurua eta euskeraz iztegi labur bat da. Ona emen:

KARTAGO'TARRAK ETA EUSKALDUNAK

Basoetan bizi izateak egin ebazan euskaldunak eiztari eta gudaketan ibilli-bearrak biurtu ebazan sendo eta gudari, bigunkerien arerio eta jan-edanean neurtu. Beti izan dira artega eta neketsu, gosean eta lanean iraunkor, izkillu gitxiko eta gorputz arineko, gudaketan beti buru-utzik ibilteko gai.

Kartago'tarrak Erroma'tarren aurka egin eben gudan, Anibal'en gudarostean, an dagoz euskaldunak gudaldiak irabazteko lagutzen.

Batzuk kartagotarrak egindako gudaldietan euskaldunak izan zirala ukatu egiten dabe, baiña or daukaguz Anibal'ek Iberia'tik atera ebazan gudariakaz euskaldunak izan zirala diñoskun Silio Italiko'ren berbak:

"Euskalduna, burutzik gudatzen zalea, izkilludun",

eta Trasimeno-inguruko jazokizun aintzagarriak aita-tzean beste au:

"Kantabriarrak eta estalkia alboratzen daben euskalduna"

Eta beste au Kanna'eko gudaldiaren ostean:

"Kantabriarra estutzen eban gazteari,

"Vocant itaque vascones Coelum-Cerua, Terram-Lurra, Solen-Eguzquia, Lunam-Irarguia, Stellam-Içarra, Nubem-Odeya, Panem-Oguia, Vinum-Ardaoa, Carnem-Araguia, Maritum-Senarra, Flumen-Ibaya, Bibo-Edatendot, Lego-Iracurtendot, Domum-Echea, Villan-Uria, Lectum-Oeea, Interulan-Alcandorea, Senem-Çarra, Album-Çuria, Nigrum-Belça, Rubrum-Gorria, Piscen-Arraya, Amare-Onextea, Dormio-Lonaça, Video-Dacust, Hominem-Guiçona, Mulierem-Emaztea, Filium-Semea, Filiam-Alautea, Patrem-Aytea, Matrem-Amea, Fratrem-Anagea, Sororem-Arrauea, Corpus-Gorpuça, Ignem-Sua, Formosum-Ederra, Comedere-Ian, Curro-Laster eguitendot.

Habent etiam numerandi modu dicentes. Vnum-Bat, Duo-Bi, Tria-Iru, Quatuor-Lau, Quinq-Bost, Sex-Sey, Septem-Çaçpi, Octo-Çorci, Nouen-Vederaçi, Decem-Amarr, Viginti-Oguey, Triginta-Ogueytamar, Cuadraginta-Berroguey, Quiquaginta-Berrogueytamar, Sexaginta-Iruroguey, Septuaginta-Irurogueytamar, Octoginta-Lauroguey, Nonaginta-Laurogueytamar, Centum-Eun".

Iztegi ori Bizkai'koa da, baiña "belça" itza da Gipuzkoa'koa. Dana ulertzen da errez-errez, itz bi pizka bat gatxak: Amar-Onerextea eta Duerdo-Lonaça.

Menéndez Pidal Izkutalari aundiak esan eban Bilbao'ko itzaldi baten (1921), "v" ta "b" erabilten dirala, orduan bear ba'da euskereak "b" iguzia eta iguzi bagekoa eukazalako. Eta gaur ikusi bearreko gauzea dala euskeraz noiz artzen dogun "b" iguzia eta noz iguzi bagekoa. Beste arazo bat be aztertu eban iztegi onetan, sakakadea edo agentua non ezartzen dauan. Guk ez dogu ezarri. Emen agertu doguzan gairik geienak Urkixo'tar Julio'gandik artu doguz (RIEV, 16-476).

euskaldun ariñak sendo orniduta, izkillu ilkorrak kentzen dautsoz".

Anibal'ek, estu aurkitzen zanean, laguntza bear eban eta Ispania'n geratu zan Asdrubal bere anaia arduratu zan gudariak batu eta eroateko. Euskalerrira etorri eta gaztedi ugari eta sendoa batu eban eta euskaroak keltiberoakaz alkartuta gudaritegi aundia batu eta isillean eroan eban Ondarrabia'ko bide estuetatik zear eta Galiak igaro-ondoren eldu zan Italia'ra.

Kapua'n igaro eben pozaldia uri aretako negute gogorrean kaltegarri izan jakon Anibal'eri. Bere garaitzen gairian loak artu eban Anibal eta itxartuerea ez zen izan gozoa. Italia'n irabazi ebana Ispania'n galdu eban.

Ondorena, asieran erromatarrak euskaldunen aurka izan eben gorrotoa izan zan, baiña laster konturatu ziran euskalduna arerioa adoretua zana eta K.a. I47n. urtean Luzio Lukullo kontsularen bidez, Erroma'k Ispania'ko enderriak, kantabroak be bai, azpiratu ebazanean, euskaldunak erromatarrakaz alkartasuna izenpetu eben naizta au ziurtatzeko agirik agertu ez.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

ISILTASUN LOTSAGARRIZ

ANKAZ GORA BOTA NAUTE

"Diario de Navarra, Iruña'ko Eeunerokoan banuan erdel-dunek "columna" esan oi dioten "zotoi" bat. "Banuan"; orain ez bait dut: lapurretan ari ba'lira bezala, isil-isilik, era zikiñean kendu didate ba zutoi ori.

Getakizun au dala-ta, urrutikiñez onoko galde au egin dit baztandar batek, gaur, 2004'ko otsaillaren 21'ean: "Ea zergaitik utzi dedan "Diario de Navarra"n nuan euskal-zutoi ori, bertan orrenbeste ta orrenbeste urtez nere euskerazko "artikuloa" argitaratzcn iraun da gero.

Atzerrian ibilli omen da urte-pare batez eta samiñez ikusi omen du "Naparroa'ko Egunkari" orren Euskal-Orrian nere "Euskera gozoaren" ordez, ETA'ren altzoan jaio, azi ta indartutako "elbatua" zakarra.

Pentsatzen omen du, ez nik ez nere lagunek, ez genduala euskal-orri ori gure gogoz utziko.

Ona, eskerrak emanez gero, zer erantzun diotan:

Etsai asko nuala Naparroa'n, nik nere zotoi ortan egun bakoitzeko arazo larrietaz idazten nualako:

– Etsaiak Gotzaitegian, Gotzai Jaunak zuzena ez dan zerbait esaten zuanean, nere erantzuna, zotoi orren bitartez, bereala jasotzen zualako.

– Etsaiak Naparroa'ko Jaurlaritzan, bertako Sanz Jaun lendakariak ere orrelako zerbait egiten, esaten edo agintzen zuan bezain laister nere asarrearen berri zutoi ortan iristen zitzaiolako.

– Etsaia Madril'eko Jaurlaritzan, beste Probintzi guztietan bezala, Naparroa'n duan Ordezkaria, Aznar Jaun Lendarariaren eta bere Jaurlaritzako edozein ministoren aurka sarritan gogor idazten nualako.

(Badakit jaun aundi oiek danak erdaldunak dirala, baiñan baitare badakit nere euskerazko idazki oiek erderara itzulierazten zituztela).

– Etsaia, Naparroa'n UPN izen-duan PP bera, Politik'Alderdi orrek ere jasan bait du beiñ baiño geiagotan ondo irabazia zeukan jorraldia.

– Etsaia ETA'ren inguruan ibilli oi dan gure jende ezkerriak erdi-marxista guztia. Izan ere, ETA'ren eta bere inguruko gaiztakereien aurka gutxik idatzi bait du nik bezain gogor.

– Etsai Arantzazu-osteko Euskaltzaindi txatxu oni jarraituz "elbatua"ren bidetik dabilzan guztiak, oso maiz utzi izan bait ditut argi "elbatua"ren okerkeri guztiak eta bere jaiotza zikiñaren ondorengo edesti faszista, indarkeriz bete.

– Etsai "Diario de Navarra"ren administraketa-kontzeju-ko Jaun Altsuak, (eta oien arteko erlijoso españazale aundi bat) nere idazkiak abertzaleegiak omen zirialako.

Etsai geiegi nuan, dakusazunez, Egunkari orren inguruan, eta ez da arritzekoa ortik bidalia izatea. Arritzekoa bertan orrenbeste denboraz iraun izatea da.

Baiñan ez zait atsegiña izan bidaltzeko erabilli duten era zikiñ, koldar, batere duintasunik gabea, eta oraiñ euskeratzeranoan eskutitz au bidali nion Egunkari ortan esku aundia duan Patrozinio Otazu andreari:

"Gazteiz, 4-III-03

"Ene Patro maitea:

"Asti luzeegiaz, ez da zuen Egunkari ortan, betiko "Euskal-Orririk" agertu.

"Dirala illabete bi edo iru, Iruña'n alkartu giñanez gero, nik, astero bidali dizkizut zintzo nere idazkiak, baiñan ez dituzute argitaratu. Ez dituzute nere iru lagunena ere argitaratu, Euskal Orria bera ere iru illabetez argitaratzeko bait daukazute.

Naiz zuk ezer esan ez, oartu nintzan Iruña'n alkarrekin izandako billera artan, zuek nere aurka zerbait bazenutela. Ez nintzan arritu, ta nik, orrenbeste urtez bezala nere bearkizuna, astero-astero idazki bat bidaltzeko bearkizuna, leialki betez jarraitu dut, baiña "Diario de Navarra"k ez du berea, ots, nere idazki oiek argitaratzeko bearkizuna bete.

Zer ari da or gertatzen, Patro?

Egunkari ortako "columnista" edo "zutoilarien" artean zarrena eta irakurrietakoa naizekako, badut zer gertatzen zaiuzen galdetzeko eskubidea.

"Diario de Nabarra"k gure Euskal-Orria argitaratuz utzi duala hadakusgu, baiña ori isilik egin du ezertxo ere esan gabe. Ez ote genuan azalpentxo bat, ots, esplikazio txiki bat merezi?

Nere aurka ziñaudeten, eta nere aurka ziñaudetelako, nere lagunak ere jaurti dituzute "Naparro'ko Egunkari" ortatik.

Zergaitik? Guk erabiltzen genuan euskera, Naparroa'ko Euskera!, euskera baldarra dala norbaitek esan dizutelako. Beste esku zipotz askoren artean, nik, Patro, arazo guzti ontan Euskaltzaindi zimurraren eskua ikusten bait dut.

Nik, Patro, yadanik badakust orri ortara ETA'ren "elbatua" sartuko duzutela.

Zuen egunkariko Euskal-Orririk, gaiñ-gaiñean "Lingua Navarrorum" darama ikurritz ederra. Zuek ordea, ikurritz zaar bikaiñ ori kendu, eta Naparroa'n eta Naparroa'ko Egunkaririk "Lingua Navarrorum" zaramategira bota, eta "Lingua Navarrorum" orren ordez "ETA'tarrarum lingua" sartzera zoazte.

Indarkeria, gezurra, eta maltzurkeria erabilliz, bai noski, baiña alatagutziz, "elbatua" baztar guztietara sartu aal izatea, ETA'k lortua duan garaitzarik aundi da. Lortu duan garaitza bakarra. Bere "Rama Cultural" edo "Kultura-Adarraren" bidez lortua.

Min dagit, Patro, guzti ori esatera bearturik egoteak. Ez nabilkizu iñor zirikatua naiean. Eztare, ez nabil asarre, baiñan, ori bai, zauriturik nago. Nere norbaitasunean zauriturik. Urrun nigandik zuetako iñor asarretu naia edo mindu naia! Alderantziz nere lagun guztiei, eta neri neroni, txit atsegiña gertatuko litzaiguke berr-iro "Diario de Navarra"n idatzi aal izatea. Nik beintzat, izen abizenen azpian nere urrutizkiñaren zenbakia emateko oitua dutela badakizu, zuen Egunkari orren bitartez jende atsegiñ asko ezagutu bait dut.

Agur Patro. Agurpenik adiskidetsuena Egunkari ortako guztientzat, eta zuretzat zure lagun onen muxu bat, eta zure lagun au apaiza naizelako, zure lagun apaiz onen bedeinkapena.

BASKOIAK FROIA'REN GUDALDIAN (653N. URTEAN)

Zaragoza'ko gotzaiña zan Tajon jaunak 653n.urtean eskutitza egin eutson Bartzelona'ko gotzaiñari eta eskutitz onen barruan edesten dau Froia'ren matxinadea eta ekintza orretan baskoiak izan eben eskuartzea.

Froia bizigodoen dukea zan eta Txindasbinto ilten egoala, iraillaren 30n.egunean il zan, errege-aldaketa egiteko orduan sortu zan matxinada au eta bizigotoen dukea zan Froia'k euskaldunen laguntza eskatu eban.

"Ondo daki berorrek pizti narrazti oker arek noz zabaldu eban bere pozoiazen azi edentsua batzuren gogoetan eta noz aldendu ebazan bide zuzenetik maltzurkeriz batzuren gogoak. Orduan gizon kaltegarria ta zoroa zan Froiak ankerkeriz laguntzaille gaiztoak beragandu ebazan eretxi zuzeneko jaun gurtzaille zan Rezesbinto Erregearen aurka. Eta onen eraso gogorra egin eutson aberri kristiñaua kentzeko.

Gaiztakeri ikaragarri au egiteko, Pirine mendietatik kanpora atera eban baskoien erria eta iberoen aberria zapalkuntza askoren bidez zapaldu eban.

Au bai samintasuna! zapalkuntzaren aunditasuna zelakoa izan zan esateko adorea be kendu egiten dau! Baiña azkenean ikarea sartzen dauana be esan egin bear da: Kristiñau askoren odol errubakoa isuri zan, batzui samea ebagi eutsen, beste batzuk azkonez zauritu ebezan, geienak jaurtigai diran izkilluz; asko eroan ebezan atxillotuta: arrapakiñak oso ugariak izan ziran. Eleiz-arduradun ziranak, geienak, ezpatatz il ebezan samea ebagita, eta gorpu asko ankerkeriz bertanbera itzi ebezan txakurren eta saien janari izateko, errazoiz esana da emen betetzen dala irurogeta amazortzigarren salmoan idatzita dagoana.

Orrelan atxillotuak Zaragoza'ko arresiaren ondoan geratu ziran, erregea noiz etorriko zain, otoitzez Jaungoiko Algutidunari eskatzen gure gaiñera agintari ankerren buztarria etorri ez daiten eta al bait lasterren bere eskuz lagundu gaizan errege guztiz onak arerio ankerraren aurka.

Laster entzun ebazan Jainkoak bere otseinen eskariak eta errege guztiz onaren erreguak: Aldelari kementsua etorri zan eta oneri lagundu eutson algutidunak eta irain egiileari eriotzea etorri jakon zigor lez, batari emon jakozan garaipenaren ereñotzak eta besteari eriotza larri baten lotsaria.

Jainkoak bere eskuz zapuztu eban eta bere bizilekutik kanpora bota eta bere sustraia bizien lurretik kendua izan zan, esana dan eran Jainkoa goratu daigun: Zure eskumeak, Jauna, arerioa kanporatzen dau eta zure naiaz gure arerioak zapuztu dozuz."

Tajon gotzaiñaren idazki onetan agertzen dira lenengo euskaldunak auzoko erreñu bateri laguntzen, aurrerantzean be sarritan jazoko da ori.

Lenengoz euskaldunak gotor-leku bat inguratzen dabe eta luzaro gaiñera.

Idazki onetan erlejiño-arazoa agertzen da: Baskoiak kristiñauen gizonak eta ondasunak erasoten dabez eta orretan ikusi izan da beti, baskoiak oraindiño ez zirala kristiñauak. Eretxi onen aurka dago sendo A.E. Mañarikua eta olako erasoak sarritan egiten ebezela orduan kristiñauak kristiñauen aurka, diño.

Olazar'tar Martin'ek "Domuit vascones" Armando Besga'ren liburutik

ADISKIDE MARTIÑERI: AGUR!

Gaur, egutegiko orria kendu, eta 2003'an Azileko egun baten, agertu zan Abizenen, zerrenda, eta bertan aitatzten da Bermeo'ri deritxon, ERTZILLA esanez "ertz" bedar lekua dala, eta "illa" atzizkia zer esan naidana ez dakiguna. Orrexegatik gaur, zeozertxo aitaturten nator, neuk dagitana. Ba-dakizu, ondo, nun aurkitzen dan "ERTZILLA" etxea, sasoi edo aro atan, itxaso-gain eta ertzian: etxe ori eraiki ebenian, itxaso ertzian egiña dala esango eben, orrelaxe dagolako, bedar lekua, baño ERTZ izen orrek, iztegian (Ixaka Lope Mendizabal), agertzen dauan lez (margen, orilla, borde, esquina) esan nai dau eta neure eritxia, onetan dago. Eta "ILLA"k, beren esangurea, ba daukola dirudi, ba aitz edo atxa ori bere oñian, zuzen antzian, goitik-bera ebagia dalako, ilda, edo orrelako gaia, OGONOri begiratuta bardin antza emoten dau, goitik-bera, ila, landuta bezelakoa, antxiñeko zur-arotzak erabilten eban izkuntzan, sartuta, orrexegaitik, esan gura dautzut, ertzillapean, portuko etxe zarrak, atxa il orren babesean egiñak, aurkituten direla, askorik atxak landu barik, olan izanik "ILLA" itzaren esangureak be, badaukala nun bait azalpena.

Onela neure guraria azalduta, ez dot uste, nekatuta edo aserretuta geldituko zaranik. Parkatu, idazkeran egiñiko utsak.

Edozelan be gure euskal alderdiek euskaltasun eta abertzaletasun geiagoz, agertzen diran auteskundeetarako, ez daiela bakotxa beren sokeari tenka bertan gelditu, ez badabe. Euzkadin bizi garenok, geure esku daukaguzan, indar eta jabetasun, guztiak zain eta tinko eutziteko alkartegaz bat egin, itzarmen guztiak entzunda.

Geiago barik besarkada aundiarekin urregora arte, beti.

ETXEBARRIA'tar IXIDOR

OHARRA: Gipuzkoa'n be ba-dago Ertzilla abizena Bermeo'tik joana? (Martin)

BIZI-NAIAREN TIRAIN OLDARTSUA

POLITIKA UTSEZKO PEDAGOGIA

Etnologariak, euskal orubean millaka urtetako gure arbasoen sor eta bizilekua garbi egiaztatu digute. Urteak joan eta urteak etorri, erritar-go edo naziotasunaren ezaupide onek giartsu dirau, odei ta lausotan erdi ezabaturik ba da ere. Auxe da ondorioa.

Onek berarekin dakar bereizkarik nabarmen ta garrantzikoena dugun gure izkuntza, kanpotiko erasoekiko sentiberarena, ez bait-dugu gaurko zuzperraldiarde inkeaz eta kemenez lanegin gure asaben altxorraren alde.

Ainbeste argumentu ta egiaztabide gure alde izanarren, pot egin zigun bere garaian Euskalerrria'k nazio bezela bere indarrean garatzeko, agertzeko ta areago oraindik zego-kion Estadu-mailla lortzeko.

Lagungarri izango zitzaigulakoan Gaztelerrri'ko koroiarekin bat-egin genduan. babestuko gindulakoan. Onek, agian, abantaileren bat ekarri zigun, pixka batean. Alabaiñan, luzean-luzean baita kalterik anditzarrena ere. Koroiak arrotuz, mendeko ginduala uste izanik eta ituna aaztuz, Erria jaurtzeko gure eskubideaz lumatu, bidea legar gaiztoz bete ta zapal-zapal egin ginduan gure zeintasan nazionala ukatu arteraño.

Zenbait errik gudara jo oi dute berea dutenari edo izan dutenari eusteko. Guk zorionez ala zoritxarrez, batek ba'leki! ez dugu olakorik egin. Iñoiz gudetan sartu ba'gera ez da nai izan dugulako, zetozenen aurka gurea defendatzeko besteak sar-erazi gaituztelako baiño. Onela, joan dan gizaldiko guda karlistak eta 1936'ko garrengoa.

Arrazoiak gutxi balio digute. Indarra munduan nagusi dabil eta arrazoiaren orde z indar eginkorra dabillean ez dago ezer egiterik. Gudaldi oietan ia erabat galdu giñan. Uxo eizatu ta kapuxten dan antzera billuztu ginduten makiñatxo bat ezbear jasanez. Guru buruaren alde al gen-

duantxoa egiñarren pikutara joan zan gure burujabetza.

Eta Estaduak sortu ziran.— laterri indartsuenak, ostuketara joera aundiz eramanak, besteen erri-lur txiki-auleriaz ustiatzen asi zitzaizkigun. Besteen bizkarretiko lur berriz berea zabaltzera jo zuten. Ondoren, erdigune batetik agintzapeko guztia jaurri nairik, agin-pide ari danak erdirakoitu zituzten.

Ertzetako erri menderatuak erabakimen izpirik gabe, erdigunetik zetozkien agindu, neurri ta legeak, besterik eziñean, onartubear izaten zizkiguten.

Gaur, erdigunetiko agintza orren aurkako ta eskualdeen aldeko dotriña gardena zera da: mailla beeko batek bere kabuz ebaz dezakena, ez beste goragoko mailla baten erabakipean utzi. Emendik sortu zan nazionalismua: nazio bezela aitortuak izateko indarrean ari diran errien igikun berreskuratzai 11 ea.

Estaduak eta nazioak.— Nazioa, auxe da: bere nortasun politikua lorturik (edo gaberik) daukan mintzaira bereziko giza-taldea.

Estadu baterakoi batek nazio bati naiz geiago euki ditzake bere mugapean. Euskalerrria lapurretaz Estadu batuzalepean menderatutako nazio oietako bat da. Gaiñera, bi laterri ditugu gure euskal lur-zatien banatzailleak, naturala ez dana, eta ontan ez da aundi-txiki konturik. Nazio txikirik ez da. Funtsezko arrazoipidea ez datza ortan, inperialismu-kutsuan baiño. Eta baita naturaltasun jatorrago ere. Ongaitzak bi aldetatik.

Nolanai ere, Estadua, adigai artifiziala, krisi betean aurkitzen zaigu. Au dala-ta, estadu-kontzeptu au ez da erabatekoa. Aldakorra da eta billakaera bizian dugu. Izaki naturalak ez diranez, egitura aldakor eta eraberri-

tzaille dira. Eta gaur España dalako au, zeken eta eskulabur, onauxe da: nazio multzo bat. Euskalerrria, berriz, zalantzarik gabeko nazio dogu, noiz-pait orainartekoen errien mailleko edo kide izateko gai.

Gure Erri zaurituaren arazoa.— Lumatu gindutenetik askatasun-ame-tsak eioka diardugu. Baiñan gure Erria'ren burujabetza-arazo au ez omen da Europa-alkartu barruan baizik konponduko. Guk gure etxea jaurri nai dugu, iñundiko agindurik gabe. Nai ez duanak, or konpon!

Demokrazi betean ez da (ez luke bear) menderatutako naziorik. Eta demokraziarik ez danean? Demokrazi-eskola ibillian, askatasun-jardunean ikasten da. igari egiteko uretan sartzen asita ikasi oi dan antzera.

Europa alkartua.— Zer ote dakar Europa'k bere ezkutunean?

Euskaldunok Europa-zale gera, federagintza-zale. Onek ez du beste etsaigorik Estadu-nazioak baizik (nazio-estadu aurkako), gure ingurikimenak Europa-alkartean daude.

Demoratikiro eratutako Europa batek eskuarrearan dakar bere eskeintza: ixtilluak ebatzi ditzake ta oneratu. Gaur, zoritxarrez, laterrien Europa egiten ari gera, ez ondoegi ordea. Bildura da akullu oietako bat. Onez noizpait aldegiñik egiazko Europa eraikiko dugu. Eta Euskalerrria'ri (Estadu gabeko nazio) etzaio dago-kion betetokia ukatuko, pakeari bere oiñarri sendoa eman nai ba'diogu beintzat. Askatasun-jabe giñanak eta indarrez askatasuna galdu genduanak ez dugu baztarrean gelditzeko asmorik.

Ba'dakigu gizakiak eta erriak zoritxarrearan girotzen dirala. Euskalerrria'k, XXI'gn. gizaldira eltze-ko asko jasan du eta asko ikasi du.

OSINTXU'K

LEGE ZARRA (24): ETXEGINTZA TA ETXEAK

I LEGEA: LANTEGI BATEK OLEA EDO ERROTEA BARRIZTATU NAI DAUANEAN.

Lenengo esan eben: Langille askok olea edo errota bat euki eta barriztatu nai dabenean, batzuk nai izan ezker eta beste batzuk ez, konpontzea nai dauanak barriztatu leike eta landu edo eio eragin eta bere lez euki dagiala eta errenta edo frutuak artu, arik eta beste langilleak euren zatia ordaindu arte eta gero oi dan lez jarraitu dagiela.

II LEGEA: EDOZEIN BIZKAITARREK BERE LURREAN ETXEA EGIN LEI.

Baita esan eben: Edozein bizkaitarrek bere lurretan etxea edo torrea egin leikela eta inok galerazten ba dautso, alderdi biak joan daitezela epaikariagana eta onek bai entzun eta gero, zortzi egunen barruan barriak artu dagizala eta lurra-
ren jabetza argi ba'dago, aitaturiko zortzi egunen azkenean, etxea egiteko baimena emon dagiala eta besteren lurrean etxea egin dauala agertuko ba'litz, larogeta amar egunak gogoan artu barik egindakoa lurrera bota dagiala, eta auzia amar egunean garbitu eta auzialdia luzatzen ba'da, epaikariak kalte guztiak ordaindu dagiozala etxe-egilleari.

111 LEGEA: ETXEGILLEAK GAIK BESTEAREN SOLOTIK EROAN LEIKEZ.

Baita esan eben: Torrea edo etxea egiteko beste baten solotik zura edo arria edo olako gaiak eroan ba'leuz, eroan daitezela, jabeari gizon on biren eritxiz kalteak ordainduta beste bide egokirik ez ba'lego.

IV LEGEA: BIDIGAZAK ETA ABEURRIAK GUZTIENA DAN LURREAN.

Baita esan eben: Bizkia'ko erri-basoak aitonen semeenak diran lez, eta batzuk erreketara bidigazak botaten dabezen lez, baita etxe-ezaugarri diran abeurriak be, olea edo errotea edo andaparea egiteko asmoa daukenak ori isillik egiten dabelako eta kalteak etorri, auxe egintzen dabe: bidigazak bota eta abaurreak ipiñi egiten dabezenak agirian egin dagiela ori, lekuko eleizan eta eskribauaren aurrean domekaz eta meza-bitartean kanpai nagusiagaz iru danbada jota eta an azaladu bidigazak eta abaurreak nondik nora doazen eta urtehete ta egun baten aurka inor ez ba'dator leku aretan andaparea edo olea edo errotea egin dagiala berea dan lurra ba'itz lez. eta inor aurka dabela agertzen ba'dabe, zatiaren salneurriaren bi alakoa ordaindu dagitsela.

V LEGEA: LANGILLEEN SOLOETAN BIDEGINTZA TA ABAURREAK ZELAN BOTA.

Baita esan eben: olea edo errotea edo andaparea egiteko lurra edo soloa askorena danean, batek ura beraganatzeko

eta etxea egiteko eskubidea izan dagian, eztabaidak sortzen dirala eta auxe agintzen dabe: ura beraganatu nai dauanak beste lagunai eskribauaren bidez agertu dagitsela eta aurkarik ez ba'dago egin, baiña besteak nai dabela agertzen ba'dabe, zatiaren salneurriaren bi alakoa ordaindu dagitsela.

VI LEGEA: OLA-ETXEAREN LEKUA BATENA ETA ANDAPREARENA BESTE BATENA.

Baita esan eben: Andaparea edo ola-etxea edo errotea egingo dan lurra batena eta bestearenak ba'dira. eta batek antxe etxea egitea nai eta besteak ez, eta or zalantzak ba' legoz, olea edo errotea egin nai dauanaren lurra, andaparea egin gura dauanarena baiña lenago izan daitela.

VII LEGEA: GORAGOKO OLEN JABEAK URARI ZELAN EUTSI.

Baita esan eben: Udaldian oleak eta errotak ura urri eukiten dabe eta olen jabeak urari eutsi egiten dautsoe, eta beerago dagozen olai kaltea egin; orrexegaitik auxe agintzen dabe: Goragokoak urari eutsi leikioe atea zearo itxita, beeragokoa geroagokoa dalako, baiña lenengo zein lenagokoa dan ondo aztertu bear da, etajakin ezin ba'daiki uraren atea itxi guztiz, lau atzeko bitartea itzita eta orrelan egiten lez ba'da seirun maraiko zigorra izango dabe eta bideak konpontzeko izango da.

IX LEGEA: BIDIGAZARI ETA ABAURRERIK EZ INOK KENDU EPAIKARI BAGERIK.

Baita esan eben: Batek bidigazak eta abaurreak ipinita dauz eta beste batzuk kendu egiten dabez eskutuan eta isillan. orregaitik auxe agintzen dabe: Epaikariaren agindu barik inok ez dagiala, milla marairen zigorpean eta bigarrenegiz egiten ba'dabe, bi alako. erdia ipiñi dauzanarentzat eta beste erdia Bizkai'ko erri-lanetarako eta irugarrenez egin ezker, il daitela.

X LEGEA: ERROTA EDO OLABARRIA LENGOAREN LEKUAN EGITEN DAUANAK.

Baita esan eben: Batzuk euren lurreko ola edo errota zarra jausten izten dabe eta beste batzuk gorago edo beerago zarraren kalterako barriak egiten dabez ura eurentzat artuta, eta zarra egoan lekuan barria egiten ba'da. geroago egin dabenak aurka egiten dautsoe eta zalantzak kentzeko auxe agintzen dabe: zein eun urte zein berreun urte lenago jausi zan errota edo olearen ondakiñik agiri ba'da, barria egin daikela naiz gorago naiz beerago etxeak geroago egin da egon arren, barriak zarrari kalte jakon dana kendu dagiela, uretako maisuen eritxiz.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

OTOITZA

SALMOAK

41N.SALMOA: JESUS URTEN ZAN DOTRIÑA IRAGARTERA

Jesusek esan zion Amari:
"Nai det etxetik atera,
nere Aitaren naia dalako,
dotriña erakustera.
Nere lan ontan lagun eidazu,
zatoz nerekin batera.
animak argiz piztu ditezen
Aitari zuk eskatzera".

Ama Birjiña au entzutean
preparatu zan juateko,
auxe zan berak nai zuana ta
Semeari laguntzeko.
Andik aurrera askotan juan zan
berekin erreztatzeko,
iru urte falta ziraretik
itzlari ateratzeko.

Jesus juaten zan Birjiñarekin
Nazaretetik aurrera,
Isaiasek esan bezela
Neftali alde lurrera,
Salbatzaillea etorri zala
jendeari esatera,

bera zanikan agertu gabe
biotzak argitutzera.

Baita Jesusek triste zeudenak
alai ipintzen zituan.
gaixoak eta naigabetuak
bixitatutzen zituan.
Ezjakiñari erakutsiaz
maitez jarraituzten zuan,
eta iltzera zijuazten asko
jartzen osasun osuan".

Anima asko etsaiak zeuk
gaixorik bere mendean
indar aundiñez galdu naiez
eriotzan zeudenean
inpernura amiltzen zitun
Jesus ta Ama juatean,
etsaiak ezin ikusi zitun
amorruez betean.

Etsaiak oiuz bildu zituan
etsai danak inpernua
oroitu zien Jainko-gizon

ta bere Ama munduan
uste zuala bazetorrela
ta ibiltzeko kontuan
indar ta bulla aundiaren
ia nork billatzen zuan

Ezin konta al etsaiak erden
ziran onak billatzera,
Jesusek dana ikusten zuan
eldu zan errukitzera.
Otoitzak bero egin zituen
Jesus ta Amak batera
Aita indartu zituan anima
ez aulduzko galtzera.

Aitak agindu zien animak
indartuko zituala,
"Jesus Maria" esatekin
etsaiak juango zirala;
federekin eskatutzean
etsaiak aultzen dirala,
Jesusen eriotzagatikan
zerua gureztat dala.

42N. SALMOA: SANTU JOAN BATAITZAILLEA

Joan Santua aurra zanetik
bizi izan zan basuan,
Erodesek ilko ziolako
amak eramana zuan.
Ama Isabel il ondorean
Joan bakarrik zeguan.
Ama Birjiñak Ejitotikan
laguntzen zion orduan.

Joani zazpi urte artean
Birjiñak biraldu jana,
ta zazpi urte bete ondoren
ogi utsa zuan dana.
Beatri urte zituanean
berak billatzen zuana:
lixtor-ezti ta matxinsaltuak:
zan milagroez bizi zana.

Aingeru bat biraldutzen zion
Joani bixitatzeraz,

oso bakarrik bizi zalako
berekin itz egitera;
bere berriak nola ziraden
Birjiñar esatera,
ta asteen bein bere biotza
Jaunagan alaitutzera.

Joan santuak ogeita amar
urteak bete zituan,
au zan denbora joanen itza
entzutekoa munduan.
Zesar printzipe, Anas ta Kaifas
apaizak zeuden orduan,
Jauna Espiritu Santuak "Zuaz!"
esana zion basuan.

Joanek urte askoz lenago
gurutze bat egin zuan
aingeruaren laguntzarekin
egurrarekin basuan.

Gurutze aundi ontan otoitzak
asko egiten zituan,
ta etzuan nai an lagatzea
itzlari juaterakuan.

Joanek esan aingeruari:
"Erasman au Birjiñar".
Birjiñak pozez artua zuan
oroituaz Semeari.
Beste iguala zeukan Jesusek
eskeinitzeko Aitari:
bi gurutzeok gero Birjiñak
eman apostoluari.

Joan atera zan basotikan
Jaunak maitez aginduta,
kamello-larraz jantzita eta
gerria sokaz lotuta,
anka utsetan eta kolorez
autaren antza artuta;

OTOITZA

oso urnilla ta maitasunez
zeukan biotza sututa.

Ta erribera Jordanekoan

zebillen erakusteko.
penitentzi ta bataioakin
pekatuak barkatzeko.
egite onez preparatuta

beren biotzak jartzeko
agindutako eta zai zeuden
Mesias ezagutzeko.

43N. SALMOA: JESUS **DESPEDITZEN** DA

Jesus Jainkoak ogeita amar
urteak bete zituan,
Egurren batean Ama
otoitz egiten zeguan.
Irutasanak: "Nere alaba"
- deitua zin orduan-
eskeiñi zazu zure Semea
iltzeko suprimentuan.

Eskeintzen dizut nere Semea
zure naia betetzeko,
baita gizonen pekatu danen
zorra Berak ordaintzeko,
eta profetak Eskriturretan
idatzia kunplitzeko.
Ezin esan dan eskeintza au zan
bat Aitak ontzat artzeko.

Jainko-Semeak indartu zuan
Ama penaz ez iltzeko,
esana zion: "Ama nereaa
-errukia agertzeko-
zuk emandako gorputza det nik,
azi nazu bizitzeko;
zure izardiz lana egin da
eman didazu jateko.

Eman eidazu zure baimena,
nai det Aitak nai duana;
eldua da denbora uzteko
poza zurekin neukana,
eta asteko gizon guztiak
erosteko dedan lana.
Aitu dira nere deskantsuak.
naiz supritzera nuana.

Jaunak besuak jarri zitun
bere amaren lepuan,
biak negarrez egondu ziran
aiTitutzeko moduan.
Amak belauniko jarriri
erantzun zion orduan
"Aitaren naia egin dez
ni iltzea naigo nuan".

Jateko zerbait eraman zazu
O nai dezu biraltzea?

Salbatzailleak eskeintza aukeratu
etzituan nai artzea.
Nai izan zuan komeni zan
Amari argituztea.
Amak oiñetan, musu eman
nai zuan bedeinkatzea.

Jaunak bedeinkatu zuan ama
etxetik erretzekuan;
Jesus juana zan Joanengana
bataiatzea nai zuan.
Antzai Ona zan ardi galdua
billatu nairik munduan,
bere lepuan erasateko
eta sartzeko zeruan.

Aingeruari eskatzen zien
bera miñez ez iltzeko,
Jesus nola zan ikusteko ta
berriakin etortzeko.
Zela fin batzuk ematen zizken
aingeruari artzeko,
Jesus odolez izarditzean
arpegia garbitzeko.

ALDALUR'tar JUSTIÑE
(KLARATARRA)
(Gasteiz)

ABIZENAK

- RIPALDA:** "Ripa" aldapa da eta "-alda" ingurua. Baztan'en 1248
- SAGARMINAGA:** Zeanurin. Sagar mingotsak dagozen lekua. Valladolid 1602, Zeanuriko bat.
- SAGARNA:** Gipuzkoatik Bizkaira sartua. "-na" txikia. Zarautz 1585.
- SAGASTI:** Sagar asko dagon lekua. Seguran 1354.
- SAGASTA:** Oiñarria "sagar-" eta ugaritasun atziakia "-sta".
- SALABARRIA:** "Sala-" etxaldea da eta barri oraintsu egiña. Bilbaon 1721.
- SALAZAR:** Enkarterrian eta Aiala-inguruan. Etxalde zarra da. "Lope García de Salazar" 1399 jaioa.
- SALTERAIN:** Gipuzkoakoa. "Alter" (yezgo) deritxen landaren gainean dagon lekua. Aramaion 1723.
- SARASATE:** Naparroakoa. Saratsak edo "sauce"ak dagozan mendi-atea. Eibar 1695ç
- SARALEGI:** Iruñian 1777. Sara izeneko landarak dagozan aldapea.
- SARASOLA:** Sarats edo sauce asko dagon lekua. Zeberion. Gabirian 1548.
- SARATXAGA:** Saratza dagon tokia. 1736. Gueñes. Amurrio.
- SARRAOA:** Bergaran edo inguruetan agertzen da eta "Sarri-" zugazti betea dan lez, "-oa" barriz toki-atzizkia, abizenak zugatzak estu dagozan basoa esan gura dau. Anzuolan 1723.
- SARRIA:** Zuian Gares'en eta Berriz'en agertzen da. Leku askotan daukaz etxeak Bizkaian. Zugatzak estu dauzan basoa da. Oñaten 1447.
- SARRIKOLEA:** Larrabetzun eta Mungialdean dago eta zugatzak estu dauzan basoan dagon olea da.
- SASIAIN:** Sasiak dagozen tokiaren gaineko aldea esan gura dau. Arrasaten 1446.
- SASIOLA:** Sasi asko dagon lekua. "-ola" azkenean dagoanean ugaritasuna da. Deba ondoan dago izen au daroan tokia eta antxe agertzen abizena 1340.
- SATRUSTEGI:** Arakil inguruan agiri da. "San Jore'ren lekua" dala diño Mitxelenak. 1780.
- SEGURA:** Gipuzkoan eta Bizkaian, baiña abizen bardiña Gaztelan be. "-egur-" da oiñarria eta "-aga" mugatzaille sendoa. Segura'ko baten abizena da 1480.
- SERTUTXA:** Gantikan. Antxiña "sartetza" izango zan. Arte asko dagon lekua. "s-" gero ezarri da.
- SETIEN:** Gipuzkoan dago baiña gaztelan be bai beste bat bardiña. Lenago Setuain izan ei zan eta esan gurea "-etu-" sasia eta "-gain", ganea edo goia.
- SIERRA:** Ez dauko zer-ikusirik erderazko itz bardiña-gaz eta au "zearra"ren aldakuntza da. "Aldapan" dagoana esan gura dau. 1475.
- SISTIAGA:** Gipuzkoatik etorria da. "iz" edo "junco"gaz azaltzen da: "Iz" edo zi asko "-ti-" dagon lekua "-aga". Ernanin 1778.
- SOLAUN:** Laudion. "Sola"tik dator eta au oloa dagon lekua da. "-aun" "une" aldatua da. 1806.
- SOLOZABAL:** Berbak argi diñoer zer dan. Elorrioren agertzen da 1590.
- SUKIA:** Ataun'en agertzen da eta ota-antzekoa bedar bat da.
- SUSTATXA:** "S-" gero ezarria da eta "-tza" ugaritasuna dan ezkerer "-usta-" otearen antzekoa, "ota asko dagon lekua". Frantziatik etorria da.
- SUSTAETA:** Azkoitian iru etxe, goikoa, erdikoa eta beko. 1319. Ota asko dagon lekua esan gura dau.

OTO ETA POTOTO

OTOTXO'K MINA BURUAN...

Andre Joxepa bere umea artuta tranbian zijoan. Bazuen umeak okerreren bat... Burua aundituta eta oial zuriz ondo lotuta...

Ume, garraxi batean, iltzera daramaten txerrikumearen antzera (animea apartatuta)... Ama, berriz, kopetillun.

Oso asarre.

Umea ixildu arazteko, buruan zigortzen eban noiz-bein-ka.

Ixildu? Bai, bai... Kurriskak geroz eta larriagoak, mingarriagoak, zaratatsuagoak...

Tranbiako jendeak ez zion amari begi onez begiratzten. Mutxurdin batek besteari:

—Ikusi al den sekula orrelako ama biotz-gogorrik?

—Ez, neska, ez den erreza orrelako ama zekenik billatzeri k!

Umearen kurrixkak tranbi ososa betetzen zuten; baña, andre Joxepa'k ango esan-mesei kasorik egin gabe, buru aundi arrei zaplaztakoak ematen jarrai eban.

Erreka-baztarretako urjolaren orruak geitzen dijoazen bezela, ala moduz, tranbi artako gizadiaren orruak geroz da gogorragoak ziran andre Joxepa'ren kontra:

—Au da basurde-emea...!

—Abereak be euren umeak obeto zaintzen dabez...!

—Nundik sortutako sorgin txarra degu emakumea au...?

Gogaitu zitzaion andre Joxepa'ri bere pazentzia ainbeste astakari entzunda eta jarri zan ollarra bezela danen aurka:

—Semea nerea da eta neronek dakit zuek baño obeto berarekin zer egin!

—Kanpora!

—Atxo madarikatua!

—Animalia!

—Zistrin alena!

Zer esan ez zituzten tranbi aretan!

Baña, andre Joxepa ez zan errez ikaratzekoa,

Ez, orixe!

Ezer besterik erantzun barik asi zan bere semearen burutik oial zuriak kentzen... Burua aundia berez eta orain azita gero, oialak luze... Trapubenda oiek kentzean, tranbi osoa ao-zabalik gelditzu zan:

—Baña nola gertatu zaio ori?!

—Gertatuta! (Amak)

—Nola leike...?

—Errementari baten billa noa.

—Baña, nola?

—Ogean ezin geldirik egon eta buruz-beera erori zait, trakets au.

—Errementari batengana?!

—Buruz-beera oñalean sartun du burua eta atera ezin.

Eta oñala, ez da lurrezkoa, burnizkoa, baizik. Ateratzeko errementaria, bear.

ANES (DEBA-1968)

LOIOLA'KO IGNAZIO TA EUSKERA

Iñoz entzun dogu Loiola'ko Ignazio'k ez ekiala euskerarik eta orregaitik ez ebalako ezer be idatzi euskeraz. Aztertu daigun arazo au.

Ba-dakigu Xabier'ek ba-ekiala euskeraz, ori berak diñoalako eta Santxon ugartean ilten egoala gure euskeraz egin ebalako, baiña ez eban ezer be idatzi gure izkuntzaz.

Beste alde batetik, Inizio'ren idazkietan izkuntzalariak euskal-kutsu aundia aurkitzen dabe: Superlatibo gitxi, esaldi laburrak eta abar.

Josulaguna zan lego batek esan ei eutson Inazio'ri ilteko egoala:

—Aita! Zure erriko dantza bat ikusi nai neuke il aurrean!

Eta Ignazio'k aureskua dantzatu eutson bertan, bear ba'da ez lar ondo, errena be bazan-eta. Orrek esan nai dau euskal-gauzak ezagun ebazala.

Gaiñera, orantsura arte idazten jarten izan garanean, beti erderearen izan dogu. Geuk ba gaztetako eskutitzak etxera erderaz egiten genduzan. Ori antza, Ignazio'k eta Xabier'ek be.

Dana dala ba-dagoz eskutitz zarrak euskeraz idatzita, esaterako Zumarraga'ko Frai Juan'ena Ameriketatik eta Berriotxo'ar Balendin'ek bere amari idatziak. Bear ba'da aitari erderaz egingo eutson!

Gauza ederra izango zan euskerearentzat Loiola'ko Inazio'k "Gogo-jardunen liburua" euskeraz idatzi ba'leu.

Gaiñera, esan bearrekoa da, Ignazio'k España'rako izendatu eban lenengo arduraduna Araoz'ko Antonio euskalduna izan zala eta onek sarritan berba egiten eban eleizetan euskeraz. Eta Ignazio'ri idazten eutsonen beste iñok ulertzerik nai ez ebanean, euskeraz idazten eutsozala esaldi batzuk.

Inazio'k bere errira etorri zanean erritarrai berba egiten eutsen euskeraz, 1535n. urtean, 44 urtekoa zala etorri zan Paris'tik Azpeitia'ra osasuna lortzeko eta ICurriotz'ko bentara sartu zanean, bere euskeratik igarri eben nongoa zan.

OLAZAR'TAR Martin'ek

EUSKALDUNAK PELOTARI

Artea. jakituria, jolasa alkarren lagun aundiak dira. Giza semeak sortzetik artu ditu almen eder oneik. Berezkoak dira bera. gizonaren ta gizadiaren bizitza artekotasunez, ondo joan al izan dedin. almen onek gizadiari emon eutsazanak, ondo orniduta itzi eban, bizitz eder bat zuzentasunez ta alaitasunez egin al izan egian.

Gure erriaren gauz bi aitatuko dira lantxo onetan, gure pelotariak ta euren izkuntza ederra.

Pelotarien arteko erritarra naz. Ta suerte onegaz ez naz lotsatuten, poztu egiten naz. Jaiotzako auzoan bertan, ezagutu izan nebazan gizandi izan ziran zesta puntako pelotariak Marzelino Bereziartua, Gonzalo Larroskain, Segundo Zelaia, Txutxo Larrañaga ta abar.

Gizon onek euren gazte aroan, pelota kultura bidez, Euskalerrria agertu eben munduan zear Kuban, Mejikon, Txinan, Italian, Ipar ameriketan ta abar.

Gizon onek, ondo, goraldtu eben euren jatorria, munduko pelota toki ospetsuetan ibili ziran ta dabiltzaz gure pelota arte ta izkuntza zoragarria.

Biak dira jatorrak, biak dira ederrak. Pelota-jolasaren bidez euskaldun gazteak Euskalerrriaren izena ta izana agertu zituen pelota tokitik pelota tokira munduan. Gizontasuna, egizaletasuna ta euskaldun askorekin batean, euren erriaren izatezko zentzuna zabaldu eben lurraren egaletan.

Ori dala-ta, antxe, dago munduaren egal askotan euskaldunaren izaera zentzunez ta gizontasunez oiñarrirituta. Gaur egunean be, batean bestean, zentzun ederdun euzko pelotari asko dabil mundu zabalean. Zorionak euzko pelotari orrei, batetik zuen izena zaintzen dozuelako, bestetik zuen sorterriak ondo merezi daulako bere nortasunaren izen ederra.

Nik emen aitatu nai neukena da Allustiar gazte jator bat. Bein batean, zesta puntaz, nor-geiagoka egikeran, nagusi urten ta telebistara eroan eben. Izarrak ortzian dizdiz egiten dau. Ta olako gazte eder baten izar iruditua ikustea, benetan, zoragarria da. Euskaldun pelotarien giroa goratzea ederra dan legez.

Izar guztiak ez dira bardiñak, batzuk aundiagoak ta beste batzuk txikiagoak ta bakoitzak emoten dau bere almenaren eran argitasuna. Giza semeak be alantxe, dira, bakoitzak artu ta landu dituen almenen eran, argi egiten dabe munduaren aurrean. Gure Iñakik, emen ikusiko dogunez. almen ederrak artu izan ditu ta Allustiar jator bateri dagokion eran, onartu ta landu ditu, sortzez artu izan dituan almen bikain orrek.

Au ez diñot neurez bakarrik, beste askoren eretxi ederra bardiña izan da ta Euzkitzek bere egia autortu nai ba dau, olantxe, egon zan gozatsu, barrez-barrez, pozik entzuten — Izan bere. euskeraren jakituri, berezitasun ta edertasunak munduko elerti-zale jakintsuak arrituta, beti itzi izan ditu.

Ta ona emen, pelotari mutil gaztea Bizkaierazko izkuntza idazle onenaren antzera ezeren bildurrik gabe,

gaztedi guztiaren eredu bikain jarteko eran ikusi genduan. Izkuntza akats barik josi eban, berbea aozkatu euskal sen gozoenagaz ta euskera, bere ederra, izlari edo idazlari prestu batek egin leiken era ederreko.

GARIZUMA

Jai aundi bat daukagu gure begi aurrean itzez idatzirik. Jainkoa bera dator agintarritza nausiz bizia agertutik.

Zuzen ta bidezko da biziaren Jaubea ondo onartzea, garizuma aldiak bere zeregiña dau ondo jokatutea.

On ta leialtasuna agertu bear ditu gizonak lurrean, ortarako argitu borondate onagaz zuzentasunean.

EDURTZA

Edurrez zuri zuri jantzi da lur guztia mendi ta zelaian, ta txoriak negarrez bildurretan doazi igeska aidean.

Arrano nagusia len arro ebillena danak menperatzen estu ta larri doa mendi erdian dagon zuloa billatzen.

Baserritar gizonak astillaz esnatu dau sukalde nausia, aittitte ta amama biak kaltzagin dabiltz prasa arrimura.

BASATI MARGOLARIAK, KARLOMAGNO, OTON, MOZARABEAK

Erdi-aroaren asiera illunean margo-lana ikustera goaz. Erromatarren aginterrri aundia jausi eta onen lurraldea basatiz bete zan aldia.

Italia'n ostrogodoak eta Ionbardoak daukaguz eta oneik ez eben margotze-lan aundirik egin. Margo-antzeko gauzak diran Aita Santuaren emoitza dan "Teudolinda'ren ebanjelio-liburua" eta "Zidarrezko oilloa ta zazpi txitak", au be Gregorio Aundia aita santuak Teodolinda'ri emona. Ez dago argi zer esan nai dauan.

Aldi beratan España'n bisigodoak daukaguz eta onein lanik onenak liburuetakoa apaingarriak dira edo miniatu-rak dira. Eleizetako ormetan be agiri dira apaingari-riak,esaterako San Juan de Baños'en.

Frankoak izkilluetan egiten dabezan apaingarriak daukaguz,baita kutxa margotuak be.

Ikusten da asierako margolari lan au ,miniaturen bide-tik doala.

Irlanda'n aldi onetan liburu apaindu asko egin ziran,baiña amabost bat dira zaintzen diranak eta guztiak ogeta amar urteren barruan egiñak,geienetan ebanjelio apainduak, VIII gizaldikoak. Eta erabilten dabezan mar-goak orlegia,,beillegi edo oria eta gorritzkea dira.

Inglaterra'n be egiten dira olako lanak baiña egilleak Irlanda'tik ara joandako lekaideak dira.

Eskandinabia'n zer erakutsi gitxi daukagu eta ez dauke kristiñau-kutsurik, pizti biurriak eta txorien buruakaz agertzen dabez.



Guzti orreik baiña aberatsagoa da Karlomagno'ren aldia.

Giro onetan ardura aundiz apaintzen dira liburuak miniatu-rakaz eta lekaideen lana da,batez be IX gizaldian eta errege-etzeko oituruak eta kondaira edo leiendak ager-zen dabez.

Zarrenetariko bat "Gonduino'ren ebanjelioa" da: Kris-to agiri da bere jarlekuan eta lau zokoetan lau ebanjelarien irudiak.Margoak arruntak dira.

Akisgran'go eskola zan ospetsua miniatu-ralanean eta onek Bizantzio'n be ikutua egin eban. Lan ederrak eta biziak dira.

IX gizaldian Reims'ko eskolea daukagu eta onen lanak be ederrak dira.

Baiña askoz ohea da Tours'ko eskolea, 846n urte ingu-ruan:iru maillatan agertzen dau

Edestia eta kondaira edo leiendea, baiña orri osoa bate-ra Lotario'ren ebanjelioak.

Aldi onetako margolari ospetsuak Berenguer eta Lutardo.

IX gizaldian angloen indarra dator eta tankera barria. Ormak margotzen be asi dira eta mosaiko onak be egiten dabez ugari,ebanjelio-gaiakaz. Miniaturak be aurrera doan batez be Konstantza'ko lekide-etxean.,fran-koai eta lonbardoai jarraituz.

Oton (I,II,III)'en aldiko liburu apainduak be asko dagoz luburtegi-tan, Paris'en, Treveris'en, Munich'en, eta geienak ebanjelio margotuak dira. XI gizaldian galdu zan zaletasun aundi au.

España'n Asturias'eko artea eta mozarabeena dauka-guz aldi onetan eta ospetsuak dira San Julian de los Pra-dos'eko marrazkiak.

Orma-umel edo fresko onak dagoz or, baiña margoak galduta eta txarto zainduta.

Valdedios'en be antzeko freskoak dagoz.

VII gizaldiko margo-giroari jarraituz Beato de Lieba-na'ko lekaideak doguz ospetsuak miniatu-rak egiten, XI gizaldira arte. Bisigoten eta arabiarren antza dauke eta liburu orreitan gaiak Kontzilioak, Biblia eta batez be apo-kalipsis liburuak dira eta antifonarioak be bai. Miniatura guzti onei Beatoak deritxe.


Leon'go biblia Vimara abadeak margotua da. Ez da zeatz-zeatz baiña mistika-indar aundia dauka.

968n.urte inguruan Magius miniatu-rak-zale ospetsua daukagu, guztien artean onena.

Orma-margoak be ba-dagoz baiña mozarabeen artean ez askorik. San Quirze'ko freskoak, X gizaldikoak, minia-turen gaiak eurak daukez.

Amaitzeko, arrigarria da aldi onetan lekaideak euren idaztegi-tan egin eben lana,bai liburuak zabaltzen eta bai liburu oneik apaintzen, Europa osoan ikusi dogun lez.

Olazar'tar Martin'ek



SASIJAINKOEN ARIA

GUZTIOK ARDURADUN

Ludi onetako gizakiaren etorkizuna ikusteko, goiko begira-toki batetik begitu bear jako.

Leenengo jakin bear dira mundu onek daukazan berezko eta alda-eziñezko araudiak. Gizakiaren gaitasunak (posibilitades) zeintzuk diran jakiteko bigarren.

Gaur egunean, goi-maillako jakintza au ikusten dau argi: Mundu onen izatasuna, bereiztasunezko bilduma bat dala, bakoitzak, bere zeregiñak lasaitasunez eta eten-bagerik euren ardurazko lana betetea.

BERE EGILLEA'k agindu ta mugi-aldian ipini eban ori.

Mundu onetako gizadiak. utsetik, ori ikasi bear izan dau: JAINKOA'k, gure arimetan bakez ta arduraz bizi al-izateko, orren bereiztasunezko arduran ipini gaitula.

Baiña batera, askatasunezko naimen edo borondate osoan.

BESTE-EN ARDURAK

Or! asten dira gure bizitzaren gezatasun, naigabe eta zentzun-gabetasunak, gure nerekoitasunean ardura-gabekoak agertzen garelako.

Naiz ardurak beste esku batzuetan izten doguzelako edo besteen ardurak lotsarik-gabe eta baliteke indarragaz beartuta, gure arduran artzen doguzelako.

Mundu onen adimen-gahekeriaren barruan agertzen ganean, gure arrazoipidea, zentzunezko neurtasunean kokatzen da.

BERA'k bialdu dauan neurritzko bizi-tokira, garoaz ardureak.

ARDURA BAKOAK

Gaur, ondo dakigu zer gertatzen dan, ardurazko neurritik kanpo gabizenean: naiz gure osasunean minbizi. sida eta ainbat gaixotasunegaz, janariak eta gure arteko ekintzak faltso-tu ta naastetu, ondo bizitzeko naian, ordezkotako diruak ardura-gabekeriara garoaz.

Bardin jasoten da itsasoko urakaz eta euren bizitasunagaz: aizeagaz, zeru zabalagaz eta lurragaz.

Geiegi lortu gura dogu denbora gutxian obeto bizi al-izateko, eta ariñeketa orreik, ikusten dan lez, guztiz ezinezkoak dira.

Begitu bestela zelan daukagun gaur Mundu au: Ia. ia esan leike adimen-gabekoak garela.

EDESTIRA

Orregaitik, Munduko lurra'ri, ura'ri, aizea'ri ta onein bizitz-biologikoa'ri, ainbeste kalte, lapurketa ta kutsadura egiten dautzaguzen artean, gizartearen artu-emonetan bardin-antzera ibili bear dogu, edozein gauzarako ekintzan.

Gogamen guztiak BERAK emoneko lege-bakarra daukie.

Orregaitik, edozein gauza eta gauza guztiak egiteko lege bardiñakaz jokat bear da.

Ludi onen zentzunezko legea, BERE ZENTZUZKO lege bakarra da, guri agindutakoa.

Giza-bide ori ikusteko, nai-ta-naiezkoa da. edestiari, aza-lezko begitu bat emotea. Jakin daigun zeintzuk diran zuzen naiz oker bideratzen gaituen gogapenak.

Gero, gure Euskalerra maite onen arazoan sartu gaitazan.

LEGE ZARRAK ETA EUROPA

Kromañon gizartea Munduko Mendebal deritxon alde onetan sartu zanetik, bere giza-bideko jardueran, erri-aginte eta ikas-bide eder baten bizi bear izan eban bere etorkizunerako.

Or daukaguz Euskerea eta beragaz egin ziran, eta gaur egun be egiten diran berdingabeko Euskal LEGE ZARRAK.

Euskal gizarte tronkala, gaur gagozan Euskal lurraldeetan geratu bazan be, izotz-urtzean zabaldu ziran Mamut ta izotz-orein edo elur-auntz'en atzean.

Gero lur-toki ta bitarteko bereiztasunean kokatuta, beste erabateko izkuntz ta nortasun ederrakaz jantzita geratu ziran.

Orregaitik Europa guztitik aurkitzen dira Euskal oiñarrizko itzak.

ERROMATARRAK

Baiña erromatarrak etorri ziran, eta lenengoetan euren jaurkintza Jaun-Erregena izan bazan be, gero ardurak banatzeko egarriaz. Errepublika baten kokatu ziran.

Sekula. jauntasun ori kendu gabe, Zezar'en asmoa Mundu onentzako, Erregetza bakarra ezartzea izan zan.

Kaizergoaren jaurkintzara eroan eban mundua, eta orren bidez sasi-jainkoak. JAINKOA'ren maillako kaizer-gizonak agertu ziran.

395'an Mendebaleko eta Sortaldeko kaizergoak etorri ziran.

Mendebaleko kaizergoa 496'an izugarrizko porrot edo blaustada eginda, aienatu edo desagertu zan.

Eta Sortaldeko Kaizergoa beste milla urte luzatu bazan be, I.453n. urtean Konstantinopla Turko'en kaizergoak menperatu eban.

Baiña erromatarren menpetasunezko aginte ezereztu egin bazan be, sasi-jainkotasunaren ariak aurrera jarraitzeko Konstantino arduratu zan.

Orretarako kristautasunak ekarren demokrazia ekanduzko era-barrian indartu eta zabaldu zan.

Or batu ziran katoliku izenagaz, 325'an Nizea'ko Eleiz-Batzar nagusian asita.

Godok'ak laster konturatu ziran. ekarten aginte menperatzailearen asmoa ezarteko bide egokia zala.

Rekaredo'k alan ezarri eban 589'an III'garren Toledo'ko Eleiz-Batzar Nagusian. berak bere burua, Espainaren leenengo errege katoliku lez agertuta.

GODO'AK ETA ISLAM

Erri-bereziak, Godok'ak ekarren menperatzaile asmoaren aurka agertu ziran.

Euki ebezan Nortasunezko Askatasunak, baiña izkuntza ta bizitzan izatezko ikas-bidean, samurtasunezko konorte ta euren ulermeneko bereiztasunak, ezereztu egin ziran.

Afrika'tik. beste indar aundiko asmo menperatzaile bat agertu zan: Islam'eko erlijioaren ikurragaz eta berezko-errien aurka.

Oneik, godoak eta orduko erri bereziak batera ezereztu ebezan, eta orrelan sartu ziran katolikotasun ta Islam'eko ziñezkintzazko alderdikeri arroak, gaur be daukaguzenak. Noiz arte ?.

ERREGE TA JAUNAK

Orren aurka antolatu ziran berezko erriak. Errege ta Jaunak agertu ziran bestien erredua ikusita. Beti, berezko Erri-Batzarraren menpean agertzen zirala.

Baiña batera, 718'an Pelayo'k Asturias'en, Godo-menperatzailleen asmo katoliko ori ezarri eben.

l Geroago, gure jauntzan IV Juan ta Gaztela'ko errege Juan'en izenagaz, 1.388'an Asturias'ko printze-erria sortu ta izendatu zan. aurrerantzean sendo izateko asmakizunarekin.

Nor izan da etorkizunean.... ari orren gordetzaille?

LATERRI BARRIAK

Europa guztiko kaisar-jaun-erregetza'k sortu ziran.

Euren artean senditasunean naastu. eta beste goi-mailla-ko gizarte bat eraiki eben.

Baiña beti katolikotasunezko dogmaren arauz.

Eta betiko menperetzaille alderdikide ari-ori artuta, berezko-errien batzarrak alboratzeko. Ortik aurrera gurari erria dago.

Europa'ko gizarteak, ekonomi edo burubidearen arduraren, eurak jarri dira gainean sasijainko lez.

EUROPA

Europa. ekintza orren sorburuak eraginda, antolakuntza bat ezarri eben.

Gizartean, nagusitasuna alde batetik, eta jabetasun-gabe-ko zori txarra bestetik daukaguz.

Berez diran erriak eta erri orren gizarteak, beti agertuko dira menperetzailleen aurka.

Gizon/emakumea Nortasunezko ardura-gabea, ezer ez izatearen sendimenduan geratzen da.

JAUNGOIKOA'k jaiotzan emondako aginduan, ardurak, lotsagizunez beteteko, utsean itziten dabe. "Biziera, samin baten geratu da".

Eta JAINKOA'k, gizon/emakumei euren jaiotzan, emon dautsen **ORDEZKO ARDURAREN BEARTASUNA** ta **BETETEKO INDARRAK**, kikilduta geratu dira.

ERDI-AROA

Erdi-Mende guztiko etorkizunean eta azkeneko gizalditan. aginte-era ori malda berakadan doa.

Trikimailuz ezin dabe lortu sasi-jainkotasun oneri eustea.

1.789'an Frantzia'n saio bat egin eben, samea ebagiteko tramankuluaren ekintzagaz.

INDARREZ NAGUSI

Ortik aurrera daukaguz jokoz kanpoko Laterri oneik, indarkerizko batzangotasunaren bidetik aberri-barriak sortu gurean. Baiña orretarako, berezkotasuna ezereztu egin hear dabe eta or! betiko borroka latza., ezin dabe lortu. Berezko erriak bizi-bizi jarraitzen dabe.

Menperetzailleen jokoa, beti izanda hardiña, besterik ez dualako: Eskubideak kendu, ordezkartzako-dirua lortu,

gudaloztearen indarrak gainean ezarri, erlijioa eta abarreko buru diran indarrak eskuratu, berezko erriak zapaldu eta ardura-gabea itzi.

Erriaren dirua neurri estuz eskatzen dabez eta argibideetan egi-erdi ta geienetan (betiko itza parkatuta) guzurak agertzen dabez: endaren naasketak, ezjakintza, bildurra, illuntasuna, aundiak izateko eta erriak zapaltzeko.

GAUR ZER!

Gaur. kaisar-Jaun ta erregetzaren izateak ezereztuta geratu dira. Mundu ta Europa'ko gizarteak batez be.

Bizitzaren ikas-bidetik, mailla aundia artu dabe, eta euren ekintza orretatik, naatzatzailleen guzurra agirian geratu da.

Kaisar, jaun, edo sasijainkoaren errege-talde orreri gorputzetik burua ebagi dautsoe. Baiña gorputz orretan, oraindiño geratzen dira maixukeri aundi batsuk eta Europa'n, Berezko-Errien buru gaineetan, gudalozteak izugarriko keiñuakaz ipini dira.

Barregarria iruditu jatan telebistan ta aldizkaritan ikusi nebanean Aznar, Aita Santua'rengana joan dala, Europa'ko Elkargoaren Buru izateko eskatzera.

Ari-ori or dago ! ta gogor gainera !.

Baiña esan leike, beste buru jakintsu batzuk. aldatzeko prest dagozela. Daroagun bidea Mundua'ren ondamaena dala, oiñarrizko Nortasunaren ardurak zapaltzen dauzalako.

USA'REN JOKOA

Argi ikusten da gaurko Amerikarren ekintzan, zer egiten daben munduko ondasunak eurengeantzeko guzuraren aitzakiakaz (IRAQ).

Baleiteke, buru gabeko menperetzaille orren azkeneko ostikadak izatea.

Euren barruan, azkeneko auteskundeetan, asmo orretan dabizenai itzi egin dautziee aurrera egiten, konturatu daitezkan, zuzentasunaren zeatzasunak ezin dirala joan bide orretatik, guzurrezko bidea dalako.

Eta alan asi dira agertzen, gezurra dariola agiri-agirian dabizela.

ESKUMATARRAK ETA EZKERTARRAK

Onez gain, badaukagu beste arazo aundi bat ezkertaldeari begitu ezker, guztiz galduta dabizelako.

Eskumatarren jokora. oso-osoan jauzi dira.

Zetarako jaio ziran aaztuta, batzangotasun aundi batera joan gure dabe, oiñarrizko Nortasun ta bereiztasunak kontuan euki gabe. Beste sasi-j ainkotasunezkoakin batera?

Euren jaurkintzan alkar-zale edo federalak dirala esaten dabe. Baiña konturatuten dira... Espaina'ko leterrian Erri-Berezi ezberdiñak beartuta dagozela, euren Nortasunak galbidera galazota, eta gure Euskal izaera Frantzia ta Espainaren laterriak erdibituta ?.

Gizartean, ekintza ori ez da alkargo edo lagun-arteko jokoa, lagun edo kide guztien Nortasunak kontuan euki bear diralako. Eta gaur gizartekeria edo eurak aitzen daben sozialismuan dabizenak, menperetzailleen jokuan jauzi dira, eta euren joko nastetsua erakusten dabe.

Ez dira konturatzen. euren jaiotzako asmoak zeintzuk ziran. Nortasunaren arloa ez dabe ezagutzen, eta ezagutzen badabe okerragoa da, elkar-zaletasunaren aurka kokatu diralako, egiazko sozialismoaren aurka.

EDESTIA

KONTURATU BEAR DIRA

Nik uste dot, DEMOKRAZIA'ren jokoa zein dan konturatzan asten diranean, laster asiko dirala Nortasunaren bereiztasunak neurtzen.

Europa ta Mundu onen gizartea, berdintasun ordezko ekintza baten ezarriko dabe, eta berezko oiñarrietatik asi jasotzen.

Mundu onek, guztion artean beronen osasunerako bear dau, alkartezko edo adostasunezko Batzangotasuna.

NORTASUNAREN BEREIZTASUNEAN OIÑARRI-TU bear da. benetako ordezkaritzaren arduradunak or

JAUNGOIKOIA'ri gure biotzetan bakez eta guzur-gabeko aurpegi alai ta garbiakaz begitzeko, Beren legeak al-danik ondoen bete bear doguz norberagan eta errietan.

EUSKALERRIA'N

Euskalerrria'k , edestiari begituta, badaki, EUSKADI'ko ABERRIA'ren gorputzak artu dauzan eta artzen dabillen astinketak zergaitik eta zertarako direzan.

Eta Euskadi'ren babeserako , gaur inoz baiño geiago abagune edo aldion berdin-gabekoa agertu dala.

Eldu jaku ordua, danon arteko bear-bearrezko dan antolakuntza bat sortzeko.

Asmo-azterpen onetan. zer ikusi leenengo?

Erromatarrengandik asita, erdi-mende guztian gaur arte, ikusi dogun goitik-beerako menperatzaile arian azterpide-on baten bidez zeaztu, ostean jakiteko, zelango jokoa erabili bear dogun Euskalerrria'ren seme/alabak Europa ta Munduan. Gure Euskadi maite au EUSKALDUN-ABERRI lez kirian-kirian ezarriko beste Aberrien artean.

DANA EURENA!

Gaur. argi ikusten dana euren betiko ta eten-bako eragi-ñagaitik, beti izan dirala lege bideetan naaztatzailleak inor agertu ez daiten, eta gizartean izan bear diran gidariak euren-gana daroez, daukiezan sasijainkotasunezko asmoak indartzeko, diru ta maltzurkerien truke.

Baiña gaurko egoera ez da orain gizaldi bat eta erdiko egoera, gaur lengo aldiko berba bat be ez dalako oartugabekoa, danontzat agiri-agirian dakazelako esangurea, asmoa ta elburua.

Eta len ezin ba-eben lortu azkeneko gudaren indarragaz izan ezik. gaur gutxiago.

Berriaren zeaztasunagaz askatasuna ta alkartasunak ostonduta eten egitea ezinezkoa dala, naiz ta eurak daukiezan berriak emoteko tresnak, asko izan eta eurak, alegiñak egiten ibili.

Gaur be ikusten dogu euren barruak ez dautseela oarkizunik egiten, naazte-borraste orretan guzurra dariola ibilteko.

Daukien amurruagaz azkeneko mugaraño dabiz jokutzen.

Eta len, Eleiz-gizon batzuekin katolikotasunagaz ibili ba ziran be, gaurko gizarteetan talde oneikaz ez dira fidatzen.

MERKATARITZA

Len, sal-erosketako merkataritza euren eskuetan egon da. Erri-berezien mugen-zergak geiegizkoak izan dira, baiña orren aitzakiagaz ta gudaloztearen laguntzagaz Laterri menperatzaileak zaindu dabez.

Ainbat bider aldatu euskuen mugak Ebro ibaitik itsasora.

Baiña gaur daukagun ugaritasunezko aukeran, merkataritzaren buruzagi geienak. Euskalerrria'ren seme abertzaleak dira. erriaren alde jokatuko dabenak.

Menperatzaileak gure erria ainbeste guzurrekin josi dabe (lantokiak alde egingo dabela; eurakaz izan ezik itxarotasunean jausiko gariela. eta abar asko) Euskal gizartea bildurtezko asmotan, baiña alperrik.

Danez gain, batzuk bestien arduran dabizelako eta gaiñera indarrakaz , mundu onen gizartea arduragabekotuta agertzen da. Ortik aurrera ikaragarritzko arazoak sortu dira.

ZELANGO JOKOA IBILI BEAR DOGU ORAIN?

Indarkeri-gabeko ekintzan, daukaguzan alderdi guztiak politikako jokoa sartuta.

Mundu guztiko erri-berezien abertzaleak alkartuta, indar ta aukera geiago daukielako eta maltzurkerian rnaixuak diranen aurka.

Gaur guzurra ezin dabe ostonduta, eta guzurragaz izan ezik daukien asmakuntza ezin da aurrera eroan.

Pare-gabeko aukera au, Mundu ta Europa'ko gauza guztiak beren lekuan kokatzeko agertzen da.

EUSKEREIA

Euskal seme/alabak gure Jaurkintzan buru batera. eten-bako ardura baten ezarri bear gara, eta SABINO'k esaten ebana eredutzat artuta, gure Errian Euskeria izan daitela bere seme/alaben Izkuntz-Ama, aberkidetasunean alkartu egiten gaitulako.

Batez be, egi bidean beti kokatu gaitzean, eurak gure aurka aldarrikatzen dabezan salakuntzak lotsaz beterik izteko. Gure ardurazko ekinaldia ez doa, eurak griñaz beterik esaten daben lekutik, Nortasunaren bidetik baiño.

Baiña orretarako, txautzaileen arrokeriak alboratu bear doguz, gure Nortasunezko etxe-bizitza ondo-landu ta obeto kokatu arriakaz eraikitzeke.

Gure arbasoen antzera. Euren ezin-besteke sinismen eta edertasunezko Izkuntz ta LEGE ZARRA JAINKOARI begira euki ebezalako Euskal-Nortasunaren etxe-bizitza ostoztean.

ELBURU BAT

Danak ELBURU batera begira arduratu ta lan egin bear dogu, norberaren gogokoak bigarren lekuan itzita. gure ekinaldiak ez daitezkan izan oarkabeak edo adi-gabeak.

Beste berezko erriakaz arremanak estutu, ARRAZIOIAK gorputz-aundia euki dagian, eta ARDURA bere lekuan kokatu daiten: "ARDURADUN JAI O DIREN'en ARTEAN" da au. Mundu onetan ez dauka beste tokirik.

Inor ez da Nor, beste baten ardurak beteteko eta gitxiago bere borondatearen aurka.

Gaiñera iruzurrezko isekarekin: "GUK DIRUA ORDAINDU BEAR BA-DOGU, EZ DAUKAGUZAN ESKUBIDEAGAITIK DALA ORDAINTZEN DOGULA?"

Euskalerrria, asko dauka erakusteko Nortasunezko Oiñarri bidean. Orregaitik, ezagutu egin bear gaitue. eurak be gure arrazoiaz arduratu daitezkan.

Nik uste dot, ori dala bidea, gure EUSKALERRI MAITE AU ASKATZEKO. Eta batez be, Laterri menperatzaile oneri esan: "EGINKIZUN ORI EZ DALA ERRIAGAZ JOKATZEA, EZ NORTASUNAREN OIÑARRIAK BERE LEKUAN KOKATZEA, EZ MUNDUKO GENDARTEA ARDURADUN AGERTZEA.

MUNDUA BERA, GAIZPIDETIK ASKATZEKO TA OSASUNTU BIURTZEKO, ERRIEN ALDE DAGON BIDEA DA BAKARRA".

ATUTXA'tar PAUL

KORNUPETA / ADAR ZARROTZ

(3N. SARIA)

1936-VII-18. Mola Iruna'n eta Franco Afrika'n, Errepublikan-Gobernuaren aurka jeikitzen dira gerra zital bat gure artean sortuz. Ogei egin betetzerako eraman ninduen soldadu. Donostia arrapatu zutenean Loiola'ko "Ingenieros Zapadores "kuartelera"...

– Aizu,or goiko mendi orretan dagoan zementozko egitura ori zer da?

Gipuzkoa'ko Hospitalka; emen "Clínica Particular" asko daude,bañia erriko hospital bakar bat ere ez.

– Eta noizko bukatuko dute?

– Bi urte bearke dira ori amaitzeko.

Gerra iru urte buruan bukatu zan eta egitura uts ura, utsik zegoan oraindik eta iru urte pasatu ziran bitartean... Utsik iraun zuan gerra-ondoren...Hospitalik ez,eta anbulatorioak zertarako ziran?

Ogei urte pasatu ziran gerraren ondandia apur bat zuzentzeko eta hospital ori osotuta ikusteko.

Pulmoniak menpean artu ninduen eta zortzigarren egunean sendagilleak atzeraka nijoala ikusita,bere automobillean eraman nindun "Hospital Provincial" orretara.Aldundiak egiña zan eta ordaindu bear zan, asko-asko ez ba'zan ere.

Nere gelan bi oge eta bat libre zegoen. Irugarren egunean, gaueko ordu batetan,argiak piztu ziran eta gaxo bat sartu zuten, etxeko pijama kentzeko astirik artu barik,biotzekoak emanda... Ez itzik egiteko,ez indarrrik eta geldi egoteko... Goizeko argiak batera agertu ziran barriri eta gela bertan aztertu zuten beetik gora. Ez zuen biotzekorik,ikusit egin bear zer...

Ona emen sendagille gazte bat paperez beteta:

– Izena?

– Fulano.

– Nongoa zera?

– Cordoba'ko kortijo batekoa.

– Gurasoak bizi dituzu?

– Aita illa daukat

– Zergaitik il zan? Zer gaixotasun eukan?

Gure mutilla ixilik; erantzunik,ez.Aurrean zeukan anaiari begiratu zion eta arek buruakin baietz, esateko.

– Goseak il zuan .

Ori entzutean sendagille gaztea mutu gelditu zan eta beste galderarik gabe,alde egin zigun...

Biok bakarrik gelditu giñanean,berba-jario asi zan.

– Zuek euskaldunok izen txarra daramazue zeurokin eta izen orren itzala Andaluzia'ko kortijora be eldu da... Ba-dakizu,urietako aundikiak etortzen ziran zezenak ikustera: bitartean eizean egin eta ondotoxoa jan-eran... Aietek ekartzen ziguten zuen atsa...

– Eta zuk Cordoba'ko kortijo batetik nola jo zendun Donosti'ra?

Kontu luzea da eta ez da sinisten erreza. Amaika urte bete nituanean jaio zan zezentxo bat gure kortijo madarikatatu aretan. Eta kuma-erditzean,ama galdu. Ni aukeratu ninduen aitak aren zaindari eta ama-ordeko.

Egunoro bei bat jetxi eta biberoi aundi batekin ematen nion esnea. Amatzat artu ninduen. Belarra jaten asita gero be, biberoria ematen nion osagarri.

– Maitetuko zinduen...

– Oso maite ninduen. Nik amabi urte eta berak bat, idisko betz-beltza, adar-zuzen... Ortik edo, "Cornupeta" imiñi zioten izen.

– Alkarrekin ibiltzen ziñaten?

– Aal nuen geienetan... Ni nintzan taldearen zuzendari. Nik amasei urte eta arek bost urte:bel-beltza, adar-zuzen eta indarra salgai... Talde osoaren jabe egin zan eta bere errespetoa sartun eta aien artean ibiltzen oitu nintzan.

– Eta beste zezenak onartzen...?

– Nere alde irteteko beti zegoan prest Cornupeta eta ni onatzera beartu zitun beste guztiak... Zorionekoa nintzan neure pobrezian.zezenen artean eta natutara-ardian: Zerua garbi, baso ederrak, belardi zabalak, zer geiago bear nuen nik ogei-zati bat jateko izan ezkerro? Bañia. bat-batean, zeru-ortzgarbia buru-gaiñera etorri zitzaidan.

– Nola, bañia?

– Amasei urteak bete-berriak nitun eta Cornupeta'k bost. Goiz batean aitak esan zidan:

– Mutiko. Madril'era goaz.

– Eta amari:

– Praka ta alkondara garbia presta mutikoarentzat...

Beste garbitasunik ez zidan eman... Illunabarrean bi kamioi aundi agertu ziran kortijoan eta ogera bidaldu ninduen lo-kuluska bat egitera... Andik aldi batera esnatu ninduen:

– Jeiki mutiko! Madril'era goaz!

Lenengo kamioian aita eta ni bigarreanean. ni... bideak luze... aldapak gora... Eguna zabaltzean eldu gintzan Madril'era; kale zuzenak argiz beteak...

– Eta Madril'en zer?

– Posada de la Animas ostatuan utzi ninduen aitak eta bere lanetara alde egin zuen... Eguna leiostik begira pasa nuen: Zenbat automobil jiraka eta zenbat argi gauean! Bigarren lo-aldia egin nuen berandura arte. Aitak:

– Jeiki! Eguerdia da! Arratsaldean korridara goaz!

Nere poza! Kortijo bateko ume arlotea korridara?

Bazkal-ostean.aita ta biok "Las Ventas" zezen-plazara...!

– Ez da suerte makala!

– Ate txiki batetik sartu zaldi-artera eta andik izugarritzko zezen-plaza. Ango batek esan zion aitari:

– "Mayoral al callejón".

IPUIN-SARIKETA

Lenengo maillan,ia zezenak ikutzeko moduan... Oituta negoen zezenak gerturik ikusten. Zai-zai nengoen noiz ikusiko...

Beti zezen-arteaz bizi izan ziran...

– Turuta jo dute eta or nun agertzen dan ate gorri batek martxa guztian,zezen beltza: lau anak arin eta gorpuzta zuzen-zuzenean... Suntzitura gelditu nintzan: Adar-zuzen aiek ez al ziran Cornupeta'renak?

– Susto ederra artuko zenduan!

– Plaza,beste aldetik irten zuen eta ez nion ondo erreparatu eta gerturatu zanean,orduante kontura nintzan bera zala. Kapote batekin artu zuen toreroak eta zuzen sartu zan trapura: Ole!– garraxi egin zuen jendeak. "Ole,ole,ole". Zurrubilloa sortu zitzaidan buruan... Guk ekarri degu Kornupeta onera? Zertarako? Laister konturatu nintzan zertarako, zaldun gaizto arek JIantza bat bizkarretik sartu zionean... Cornupeta ez zan ikaratu... Jo zion berriro eta irugarrenez eta bizkarra apurtu zioten,odoletan utzirik... Gero banderillak eta azkenik ezpata zorrotza...

– Eta zuk zer egiten zenduan?

– Negarrez oiuka asi nintzan... Biotza lertu zitzaidan barruan eta salto egin nuen ondarrera ta beregana joanda lepotik eldu nion; begirune tristeza berea: Ezagutu nindun eta plaza osoa orruz bete zan... Toreru batek indarrez eldu zidan eta "callejon"era eraman. Andik,negarrez eta oiuka, zaldien ate txikira jo nuen kalera. Korri eta korri ilunabarrera arte, Madril-inguruko soroen artetik... Trenbide batekin topo egin nuen eta trenbideari jarraituz,geltoki batean sartun. An zegoen "merkantzi" bat eta erdi-utzik zegoen bagoi batean sartu nintzan neka-neka eginda... Trenak irten zuen eta loak artu ninduan... Argitu zue-nean,biotza neukan lerturik,urdailla gose eta aulerria gorpuztean...

– Gau guztian lo?

– Bai. Oso-osorik. Goiz-erdia geltoki batean geratu zan trena. Salto egin nuenean, jan-usaiña nabaritu nuen sudurretan eta usain orren ondoren, eskilleretan beera sukalde batean agertu nintzan.

– Zer nai, mutiko?

– Ogi-zati bat, goseak iltzen nago-eta...

– Nire irudiakin errukituta,sekula jan ez nuen jatekoa eman zidaten. Explikatu nien nundik nora netorren eta lanen bat,edozer, eskatu nien jan-truke... Beko bodega batean upel aundiak zeuden ardoz beteta eta andik bote-

lletara ardoa pasa... Pozik ekin nion lanari eta gerora soldata be ematen zidaten... Bi urte ondoren pentsatu nuen lanari utzi eta kanpora irtetea... Bi urteetako soldata jaso eta irten nuen kalera neure burua oso aberats ikusirik, begiak eta agoa zabal-zabalik ainbeste gauza lilluragarriak ikustean... Dendak pausorik pauso... eta itxaropena ba-nuen aietako batean lan berriren bat billatzeko... Sartu eta galdetu:

– Lanik bai?

– Lanik ez...

Itxaropena galtzen asita nengoen eta alako batean gizon eldu bat aurkitu nuen maai altu batean berunezko letra batzuekin jolasten.

– Niretzako lanik bai?

Begira-begira geratu zan eta bere emazteari dei egin zion:

– Josepa! Ara Jainkoak zer bialtzen digun, ildako Josetxo'ren ordeaz. Bai,mutiko, lana, jana eta ogea, guztiok dituzu gure artean...

Artu ninduen semetzat. Berunezko letra aiekin ikasi nuen irakurtzen eta besteei irakurtzeko lana ematen... Eta gaur egun inprenta eder baten jabe naiz.

– Eta oiek guztiak non gertatu ziran?

– Emen, Donsotia'n. Laister ekarri nituen nere anaiak neregana.

– Baña,nola ekarri dituzu terrorista-artera?

– Zer ori España osoan zabalduzako ke beltza da Euskalerraren ederra ta jatortasuna ezagutu ez dezaten. Gezurraren gezurrez sortutako zurrubilloa... Baña nik esker ona gordeten diot Donosti ta Euskalerrari emen egin ninduelako gizon eta neure eskubide osoen jabe...

Etenik gabe jardun ziran bere ango bizia kontazen eta nola goseak erail zuan bere aita aundikien eskuetan; limoia ustutzen dan modura, gizona ustu eta ondakiñak saborretara bota.

– Baña,gaizto errukigabeak euskaldunak zerazte.

Azilla.Urtea 2003-II-25

Oarra: Hospitaleko zertzeladak gertatuak dira.Kontakizun onen asmakizuna "Cornupeta" bera da: "Zezen beltz adar-zorrotz"a.

ANASTASIO ARRINDA ALBISU

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5


Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebaki orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 € Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

EUSKALDUN BARRIAK



Nundik elduko da olloa bere arrautzak ikusteko?



Zazpi ezbardintasunak.

KARMELE

BBK

EUSKERAZALE ^a1

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dchi
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 Eur)

txartelak

pimniS . T,



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilerro,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

www.bbk.es

ISSN: 1132 - 1350
Lege gordailua: BI-1452-85
FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

bbk =